

URUBI ZURIA

Urubiaren izen zientifikoa **Strix Aluco** da. Euskaraz beste izen batzuk baditu ere: *Basontz, Guaerdiko mozolo, Gaumotz, Gauontz, Egaztimotx, Huntz eta Huloete da.*

Beste hizkuntzetan: *Gaztelaniaz Carabo da eta frantxesez Choute eta Hulote dira.*

Deskribapena

Marroi zuria da, 40 zentimetro neurtzen ditu, 600 gramo pisatzen du.

Aurpegi biribil handia, zirkulu ilun batez inguratua eta begi beltzak ditu. Buztana laburra du eta atzapar handiak eta zorrotzak.

Untxi txikiak, saguak eta intsektuak jaten ditu. Harrapakinen hezurak eta ilea ahotik botatzen dituzte, bolatxoetan.

Zuhaitz barruetan egiten ditu habiak.

Bitxikeriak

Kumeak lumak atera baino lehen ateratzen dira habiatik. Urubiek oso entzumen ona dute. Harrapakinak ilunpean aurki ditzakete, nola mugitzen diren entzute hutsarekin.



1. Zein da Urubi Zuriaren izen zientifikoa?

- Asterix
- Strix Aluco
- Obelix

2. Nolako itxura fisikoa du Urubi Zuriak?

- Beltza da, txikia eta nahiko potoloa.
- Zuri-beltza, alaia eta jatuna.
- Marroi zuria, aurpegi biribila eta buztana laburra.

3. Zer jaten du?

- Untxi txikiak, saguak eta intsektuak jaten ditu
- Tximeletak, saguak eta zizareak jaten ditu.
- Untxi txikiak, tximeletak eta euliak jaten ditu.

4. Non bizi da?

- Zuhaitzetan bizi da.
- Gure etxeetan bizi da.
- Hondartzetan bizi da.

5. Esan hurrengo esaldiak Egia (E) ala Gezurra (G) diren.

- a. Kumeak ez dira habiatik ateratzen lumak izan arte.
- b. Urubiek oso entzumen ona dute.
- c. Harrapakinak soilik egunean zehar hartzen dituzte, bista erabiltzen dutelako.